

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

555. zkia.  
XIV. urtea  
2006ko urtarrilak 13a



# Mendaroko bizkotxoak, mokadu arina



Mutua General de Seguros

**ASEGURU MOTA GUZTIAK**

Istripu aseguruak  
Istripuak errentarekin  
Gaixotasun aseguruak  
Auto aseguruak  
Etxe aseguruak

Aurrezte planak  
Jubilazio planak  
Bizitza aseguruak  
PYME aseguruak  
Denda aseguruak

Diru inbertsioak  
- "Vida fondo" (unit link)  
- Boltsa  
- Inberseguruak (kapital ziurtatuarekin)  
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO  
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

**JON PUERTAS** EGOKITU ZAIO

Jausoro plaza, 1 behea  
Tel: 943 74 26 99  
Faxa: 943 74 12 35  
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain

**ZORIONAK!**



**ZEZEN-BIDE**  
AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



**ORDUTEGIA**

**10:00etatik-12:30era**  
**15:00etatik-20:30era**

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**  
Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**  
(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



IMANOL LARRAÑAGA

Ilusioa. "Irudimenean gogoko den zerbait lortzeko desioa, itxaropen bizia". Beti pentsatu izan dut ilusioa dela tente eta bizirik mantentzen gaituena. Ilusioa dela goizetan ohetik altxatzeko bultzadaxoa ematen diguna. Ilusioa bizipoza da. Ilusiorik gabeko bizitzari, gatzik gabeko bakailaoaren gustua hartzen diot. Makala. Musikarik gabeko tabernaren traza. Tristea. Ardoa falta zaion botilaren tankera. Hutsa.

Egunotan ere, ilusioaren itzala hara eta hona sumatu dut nire inguruan. Bost urteko ilobak Olentzero gure etxeko sukaldera nondik sartuko zen galdetu zigunean, ilusioaren distira ikusi nuen haren bi begi txikietan. Gero, ilusioa letra gorritz pintatuta azaldu zitzaidan lagun baten ezpainetan, mutil-lagunarekin estreinakoz oheratu behar zela kontatu zidanean. Baina, ilusioaren benetako indarra, Uxue, gure amamaren esku zimurtuek transmititu zidaten Gabon zahar bezperan. 96 urte beteko ditu laster amamak; ibiltzeko gauza ez dela dago ohean, gaixorik. Baina, hilabete barru Santa Ageda bezpera dela gogorarazi nionean, eskutik heldu zidan eta ilusioak ematen duen indarra sentitu nuen. Otsailaren 4ra arte bizirik mantenduko duen indarra zen.

Ilusioak ez dauka adinik, Uxue. Txikienak bezala harrapatzen ditu zaharrenak ere. Kontatzeko modukoak al dira zu bezalako neska gazte baten ilusioak?

## ZOZOAK BELEARI...



UXUE ALBERDI

Kontatu daitezke, Imanol, baina hatz guztiak bukatuko litzazkidak zenbatzen hasita...

Ilusioaz pentsatzen hasten naizenean *Matriuskekin* oroitzen naiz. Panpina errusiar horiek dira *Matriuskak*, erditik ireki eta barruan beti beste panpina txikiago bat dutenak, eta barrukoaren barruan beste bat, eta haren barruan beste bat... Txikitan panpina errusiar bat oparitu zidaten, lodi-lodia. Panpina ireki eta barruan beste bat topatzeak izugarrizko poza eragin zidan. Haurdun zegoen panpina bakoitzeko handiagoa zen nire poza. Baina, azkenean, panpina txiki-txiki bat topatu nuen beste baten barruan, eta azkena zela sinetsi nuen, panpina txiki hura ezin zela haurdun egon. Segituan aspertu nintzen panpinarekin, jada ez zeukan misteriorik.

Duela astebate, ordea, aspaldiko *Matriuska* hura topatu nuen hauts artean, eta panpina txikienari begira nengoela, marratxo bat ikusi nion gerri aldean. Harrituta, panpina txikia ireki eta barruan are txikiago bat aurkitu nuen!

Horixe da, ilusioa, Imanol, *Matriuskaren* barruan oraindik beste panpinatxo bat geratzen dela sinestea. Zure amamak ondo daki hori, eta Santa Ageda bezperan irekiko du hautsak hartu gabeko bere *Matriuska*. Ni ziur nago haurdun dagoela.

«Ilusioa da  
tente eta bizirik  
mantentzen  
gaituena»

IMANOL

«Ilusioaz  
pentsatzean  
*Matriuskekin*  
gogoratzen naiz»

UXUE



IDEAL BAT DUEN PERTSONAK EGITEN DUEN INDARRA INTERESAK  
MUGIARAZTEN DITUEN LAROGEITA HEMERETZIREN ADINEKOA DA



John Stuart Mill

## Euskal Presoak Euskal Herrira?

Euskal preso politiko bat gose eta egarri greban dela, senide batek istripu bat duela, mobilizazio bat dagoela... adierazten duen kartel bat (kola gabe) Elgoibarko paretetan azaldu, eta ez ditu 24 ordu irauten. Euskal Preso eta iheslari politikoen senide eta lagunok nazkatuta gaude zentsura honetaz. Udaletxeak aginduta lan hau egiten dutenek, ez dituzte paretak garbitzen. Mezu jakin bat duten aldarriak isilarazten dituzte bakarrik (beste kartel batzuek askoz gehiago irauten dute guztionak diren Elgoibarko kaleetan). Adierazpen askatasunaren inguruko eztabaida luzea litzateke, eta ez gara horretan sartuko. Berriro ere eskatu nahi dugu, txarteletako data pasa arte, kartelik ez kentzea eta egoera larriak salatzen dituztenak, egun batzuetan behintzat bakean uztea (hau da, aspaldiko ahozko tratu hartan adostutakoa betetzeko. Guk tratuko gure parte bat betetzen baitugu: kolarik ez erabili). Pentsatzekoa da, honen ardura duenak, hitzez *Euskal Presoak Euskal Herrira* esan

izan badu ere, ekintzetan dispersioaren defendatzaile sutsuena dela.

Besterik gabe, urtarrileko azken ostiralean 20:00etan Foruen Enparantzan egingo dugun elkarretaratze isilera etorriko zarelakoan, agur irakurle.

### ELGOIBARKO ETXERAT

## Motxaila santua eta sasikoipetsu

Argia ilunari irabazten hasten zaion sasioan, natura esnatzerakoan, inauterien zentzu berean Sasikoipetsu ospatzen zuten gure arbasoek (batzuk 'sasikopotzu' deitzen dute, Markinan txixiburduntzi ei da). Jan, edan eta akelarre egiten zuten basoan, aintzinako euskal egutegiko urteari, elurren urtzeari, hasiera emateko.

Aurten, eta hemendik aurrera urtez urte, Sasikoipetsu ospatuko dugu Mendaroko tribuaren totem eta guzti, Motxaila Santua omentzeko eguna izango baita. Motxailak baikara mendarorak. Ez ahaztu, motxailak, prostitutak, indigenak, euskaldunak, homosexualak, etxekoandreak, ilegalak, baserritarrak, zubipeko eskaleak izan,

denoi, supermerkatuko berdinzalekeriatik desberdintzen gaituen marka zama astun bilakatzen digula jainko txikien gizarte honek. Horregatik, eta inguruan aspaldian ikusten dugun jainkotxo, aberaskilo eta sasijakintsu usainetik ihes, amabirjina edo Mari bezalaxe, geuk Motxaila Santua jarriko dugu errezatzeko. Mendaron, garai baten, motxaila eta bidelapurrek aberaskiloei lapurtu eta harrapakina behartsuenen eta herriaren artean banatzen zutela goaon.

Non gurtu Motxaila Santua? Ba ote dugu tenplua? Bai, Haitzbeltzeko kobazuloan. Noiz? Aurten otsailaren 11n, zapatuan, goizeko 9etan irtengo gara Haitzbeltzerantz Kilimoi erreka eta Deba ibaiak bat egiten duteneko zubitik. Haitzbeltzera iritsitakoan Motxailari ofrenda, sermoia eta poesia proletarioa, bertsoa, txalaparta, motxailen 'keji' batzuk ere bai. Akelarea.

Gora Mendaro! Gora Motxailherria!

Elgoibartarrak ere gonbidatuak zaudete. Motxailherriak ez du mugarik.

### AUZOLANIAN



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12 • Faxe: ☎ 943 74 37 04  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Camejo, Juanito Garostiza, Amaia Gorroategi, Sora Gurutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Urruzuno, Unai Willena, Alaitz Vives **ESABEA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburunik **INPRIMATEGIA** Geru TIRADA 4.410 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

## I. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 12an, 83 urte zituela hil zen

*Luken Larreategi Orunaren*

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



## TXALOKAK



• **Mausitxa baseriko Jesus Ansola eta Rosa Mari Salegi senar emazteentzat txalo bero bat:** "Mausitxakoen urtea izan da 2005a, eta urtea ondo baino hobeto amaitzeko, Gabon Zahar Feriako Gazta Lehiaketa irabazi zuten. Urte borobila, benetan. Zorionak!".

• **Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi ditu:** "Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu Gabon Zahar Feriako Txosna antolatzen lagundu diguten guztiei eta bertara hurbildu zirenei".



## KEXAK

• **Santa Klaran egin dituzten etxe berrietarako sarbideak lokatzez beteta daude:** "Etxeak erosi genituenean planoetan sarbide dotore batzuk erakutsi zizkiguten baina orain Udalaren baimena falta zaiela esaten digute eraikuntza enpresakoek. Oinezkoentzako sarbide guztiak amaitu gabe daude, denak lokatzez beteta. Ez dago eskubiderik".

• **Elgoibar Ikastolako bide gurutzean ezbeharren bat gertatuko da:** "Bilbon gertatu den bezalaxe, egunen baten Ikastolarako bidean autoren batek umeren bat harrapatuko duela iruditzen zait. Lehen botoia sakatzeko semaforo bat zegoen, baina kendu egin zuten. Orain zebra-bide bat besterik ez dago eta auto gidariek askotan ez dute errespetatzen. Zerbait gertatu aurretik hartu behar dira neurriak, gero beranduegi izango da-eta".



Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
**☎ 943 74 41 12**

## komikia

Hil da gero... Arzak kozinero



Kokoa 042

# Gau-eskolatik euskaltegieta 50 urtean

## 50 urte euskara ikasten eta irakasten

Aurten 50 urte beteko ditu Elgoibarko euskalduntze-alfabetatzeak. 1956an gau-eskolako ateak estreinakoz ireki zituztenean, akaso, ez zuten asko pentsatuko hainbesteko ibilbidea egingo zutenik, baina urteak pasa egin dira bata bestearen atzetik.

Lehen bi hamarkadetan kondizio eskaseta jardun zuten euskara ikasten eta irakasten, baina 76-80 urteetan aldaketa handiak eta garrantzitsuak izan ziren, eta baldintzak asko hobetu ziren. Gainera, 82an gau-eskolako ateak betirako itxi eta bi euskaltegiak sortu ziren: 82an AEK, eta 83an Udal Euskaltegia. Ordutik, bi euskaltegiak arduratu dira helduen euskalduntze-alfabetatzeaz gure herrian.

Lan handia eta emankorra izan da 50 urteotan egindakoa. Jende askoren esfortzua eta ahalegina pilatu da hamaika ikasgelatan. Baina, kasu askotan, egindako lana gela barruan geratu den errezeloa daukagu. Ezkutuan. Horregatik, guk egin ahal dugun neurrian, mende erdi honetan bizi izandakoa bistaratzea pentsatu dugu. Bistan dago ezingo dugula dena erakutsi, baina hurrengo 20 asteetan 50 urteotako historia jasotzen saiatuko gara. Historiari eta historiako protagonistei egingo diegu tokia.

Zutabe honetan, motz-motz bada ere, 50 urteotan gertatutakoa eta bizi izandakoa kontatuko dizuegu. Eta aldameneko zutabera, berriz, historia honetako protagonista batzuk ekarriko ditugu. Ulertuko duzuen moduan, ezin ditugu denak ekarri. 20 lagun baino ez dira azalduko, baina seguru gaude hauen ahotik berba egingo dutela gainontzekoek ere.

Beraz, datorren astetik aurrera, 1956an hasi eta oraindik amaitu ez den historia ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.



### ITZIAR KONDE

GAU ESKOLAKO IKASLEA  
1956AN

*Itziarrek betidanik eduki du euskaraz behar bezala berba egiteko ardura. Alfabetatzeko asmoz urtebete egin zuen gau-eskolan, honen hastapenetan. 50 urterekin Ikastolako gau- eskolan hasi zen, eta P. Muguruzako ikastetxean gaztetxoenei euskara irakatsiz amaitu zuen.*

#### • Euskaraz jakinda, zergatik hasi zinen gau-eskolan?

Sasoi hartan etxian bakarrik egin geinken euskeraz, eta ez oso txukun gainera. Hala ere, idazteko izaten genittuan zailtasunik haundixenak. Akorduan dakat estazioko enplegau bat Gabontan zelan etortzen zan gurasuen tabernara txartel batzuk euskaratzeko. Berba egiten genduan moduan idazten naban! Betidanik euki dot arduria euskaraz ondo ikasteko, eta alfabetatzeko biharra neukala konturatu nitzan. Aitxak makiña bat aldiz zuzetzen zian nik oker esandakua, "zer ikusi diazula kalia?" ikusi zaitxut esaten da" eta holako zuzenketa mordo egiten zizkidan.

#### • Zein izan ziren irakasleak?

On Jose Juaristi parrokua. Frente de Juventudes Falangistasen lokalian

(orain Gabi jatetxia eta aurrez Batzokixa egon zan lokalean, I. pisuan) jasotzen genittuan klasiak astean biritan eta isilpian.

#### • Igarri al zenuen hobekuntzarik?

Bai, urtebete bakarrik egin naban arren. Sorpresarik haundixena testuak irakurtzerakuan hartu naban, ordura arte bajutikan egitten bainaban. Zelako geizki irakurtzen genduan konturatu giñan. Oñatibian liburua jarraitzen genduan, eta parrokuak beti esaldi berdinak irakurtzeko eskatzen zian: "On billa, on billa, azkenian bonbilla" edo "oinezkua nahi ez eta zaldizkoa etorri ez". Nobixorik ez nakan, eta nahitxa egiten zidala esaten nion; berak barre eta barre egitten zaban. Klaro nahitxa egitten zabalala! Oso giro ona izaten genduan.



### ESKERTZA

2005eko abenduaren 28an hil zen

*Mercedes Juaristi Ansola*ren

ilobek eta gainerako sendiak,

bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [AKORDATZEN NAIZ]



### JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Franco, Ikurriña eta Ikastolia»

**F**rancokin diktadura totala ezagutu gendun guk. Haura hil zanian hartu gendun poza! Gerora ere urte askuan egoeria ez zan asko kanbixau, baiña hobera egin gendun. ETak Carrero Blancori atakau zionian, orduan hasi zan Transizua eta Demokraziarako kanbixua, edo gaur dakagun demokrazia moduko honetara behintzat. Oñ ere gauza danak ez daude ondo, pixkat kamufauta dago lehengo diktaduria, baiña askoz hobeto gagoz. Epoka haura oso txarra izan zan. Gurasuak gerran asko sufriritutakuak dira.

Ikurriña onartu zanian, balkoietan ipinita ikustia oso emozionantia zan.

Guardia Zibilekin makiña bat burruka egin bihar izaten gendun!

Ikastolia ere aurrerapausu haundixa izan zan. Euskeraz ikasteko aukeria edukitzia oso inportantia izan

zan. Nere lagun askok euskeria galdu egin zeben, eta penia izan zan. Guk etxian egitten genduan, eutsi egin giñon, eta gero beste laguneri berriz erakutsi bihar izan giñon.



## [GURE BERBAK]

### Egittura aipagarri batzuk (1)

Gaurko egunian kalia gaztien (eta ez hain gaztien) jardunian gehixegi entzuten ez diran egittura batzuk ekariko ditugu gaur eta hurrengo aste batzuetan. Neurrixak, kantidadia, edadia, data eta abar adierazteko egittura berezi batzuk dira. **Neurrixekin** hasiko gara. Hona hemen, neurrixen berri emateko egittura batzuk, elgoibartar batzuen jardunetik etaratakuak.

- *Pisu haundixa zakan gizon harek: ehun da hogei kilo zan hil zanian.*

- *Bai. Presiak daukaz ehun da hogeta hiru metro alturan. Da luzian, ba, harek eukiko deu luzian Elgoibarko estazioitikan horraño bai, mendiraiño bai luzian.*

- *Eta luzian hartzen deu, ehun da larogeta hamairu kilometro. Eta zabalian berogeta bi.*

- *Harekin egunian milla ta bostehun kilo egur erretzen niituan.*

- *Ta hor kriston erromerixia egitten zan, frontoia bete-bete jente egoten zan han, dantzan jo ta sua!*

- *Hamendik egon bihar da zakukada bat azukre; hamendik egon bihar da patatia beste ehun kilo.*

Jesus Mari Makazaga

## URRUZUNOREN Luma



Maialen Olazabal

### Bizitzaren zentzuaz...


Arkatza eskutan hartu eta idazten hasi naiz; noraezean, nor naizen, nondik natorren, nora noan... jakin gabe. Duela gutxi lagun batek bere bizitzaren ikuspegia nola aldatu den kontatu zidan; gertaera soil batek nola aldatu duen bere bizimodua eta zein desberdin ikusten duen une honetan inguratzen duen guztia, goizeko iratzargailuaren hotsetik hasi eta gaueko bere aitaren azken zurrungak entzun arte. Ni neu ere bizitzaren zentzuari bueltak ematen hasi natzaio; denaren eta ezer ezaren, nahiazen eta ezinaren mugetan nire begiak nola lausotzen diren ohartzu.

Baina horri bueltak emanaz gauzen balorazio desberdin bat izatea lortu dut, norberak emaniko zentzua lortu daitekeela konturatuz. Esaterako, orain arte egunerokotasunaren agendan gordetzen nuen "egun on" sinplea altxor preziatuaren kutxan gordetzen dut, lagun baten musua betirako nire gogamenean lokartzen dut... Ez die-zaiegun utzi bizitzak emandako ostikoei gure bizitzaren zentzua aurkitzera behar-tzen. Gu geu izan gaitezen merezi dugun bizi itxaropenaren sortzaile eta berak emandako bizipenen solaskide. Carpe diem-en leloaz... ahaztuaz biharkoaz.


GABONAK 2005-06

## GABONAK ARGAZKITAN

*2005. urteko Gabonak ere joan dira, agur esan digute dagoeneko. Urte berria hasi da, eta berarekin batera garai berriak etorriko dira. Aurrera begiratu behar da beti, baina gu oraingoan atzera begira jarriko gara une batez, eta Gabonetan bizi izandako uneak gogoratuko ditugu. Aurtengoan ere denetarik izan dugu: Olentzero, Parrokiako jaiotza, erregeak, jaiotza biziduna... umore ona, poztasuna eta ilusioa nabari zen herriko kaleetan.*







## [ PROTAGONISTA ]




### Eulogio Estarta

Eulogio Estarta Elgoibarko seme kuttun izendatu zutenetik 50 urte beteko dira aurten eta Filatelia Elkarateak berari eskaini dio aurtengo zigilu erakusketa. Eulogio Estarta San Pedroko fabrika hasi zen lanean 12 urterekin. 1920an Estarta y Ecenarro enpresa sortu zuen eta bertako gerentea izan zen hil arte. Enpresa honetan egiten ziren "Sigma" josteko makinak. 1946an AFM (Erreminta Makina Fabrikatzaileen Elkartea) sortu zuen. 1955. urtean hil zen. Urtebete beranduago Elgoibarko seme kuttun izendatu zuten eta Sigmako auzoari bere izena jarri zioten.

## [ NOTIZIA ]

### Zigilu erakusketa, pilota eta antzerkia izango dira San Anton jaietan

San Anton Eguna urtarrilaren 17an, martitzenean, ospatzen den arren, asteburu honetan hasiko dira egun seinalatu honetarako prestatutako ekintzak. Gaur, barixakua, San Anton Pilota Txapelketaren finalerdiak jokatu dira Ikastolako frontoian (22:00) eta Glu Glu antzerki taldeak, berriz, "Todos nacemos vascos" antzezlanaren bi emanaldi emango ditu Herriko Antzokian. Bihar larunbata, berriz, zigilu erakusketa inauguratuko da. Eulogio Estarta Elgoibarko seme kuttun izendatu zuteneko 50. urteurrenari eskainia egongo da aurtengoa eta urtarrilaren 22ra arte izango da ikusgai Kultur Etxean. San Anton Egunean, hau da, hilaren 17an, klasikoak bilakatu diren ekintzen txanda izango da: Ertzaintzaren



Bandaren kontzertua, umeentzako parkea eta Parrokiako Abesbatzak parte hartuko duen Meza Nagusia, alegia. Beste klasiko bat ere beteko da egun honetan, izan ere, beherapenen garaia da eta heritar askok egun hau aprobetxatzen du dendaz-denda ibiltzeko herrikanpo.

## [ ZENBAKIA ]

# 24.000

Elgoibarko Udalak 24.000 euro erabili ditu Gabonetako argiak jartzeko. Aurtengo gabonetako berrikuntzarik aipagarriena izan da eta herritarren artean zeresan handia eman du. Argiez gain, gabonetako 60 apaingarri jarri dituzte herriko leku desberinetan.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Iritsi dira beherapenak! Kontsumismoaren aroan buru-belarri sartuta gaude. Gabonetan komertzio guztiak gainezka izan ditugu, jatekoa eta opariak barra-barra erosi dituzte, baina kontsumitzaileentzako unerik onenak orain iritsi dira: beherapenak. Begiz jotako produktuak prezio merkeagoan. Hori da hori txoltoa! Hilabete inguru iraungo dute beherapenek, baina dendetara lehenbailehen joatea komeni da, izan ere, apalak berehala husten baitira.

## Bi kale berri ditugu Santa Klara eta Basarte auzoan



**B**asarte eta Santa Klara auzoan egin dituzten etxe berriekin batera, bi kale berri estreinatu dira. Basarte auzotik kiroldegira doan kalea San Roke kalearen luzapena da eta izen berbera dauka. Kale berri honi esker, Basarteko bizilagunek herriaren erdigunera etortzeko erraztasun handiagoa daukate. Bestalde, Madala ingurunetik Basartera eta Errotaberriko etxeetara joateko eskailera mekanikoak egin dituzte. Aurrerantzean, beraz, Basarte eta Errotaberri ingurura joan behar dutenek ez dute Azkarateko errepide zaharretik joan beharrik izango.

### Aizkorri kalea

Santa Klara auzoko etxe berrietara doan kaleari Aizkorri izena ipini diote. Oraindik oinezkoentzako bideak amaitu gabe daude, baina dagoeneko banatu dituzte etxeetako giltzak eta herritar asko bertan bizi dira.

Gure herria poliki-poliki handitzen ari dela esan daiteke, eta aurrerantzean ere joera berdina mantenduko dela dirudi. Madala ingurunean egiten ari diren etxeak laster bukatuko dituzte, ondoren Pedro Muguruza Etorbidekoak hasiko dira eta Santa Ana kaleko errotonda gainean ere 99 etxebizitza eraikiko dira.

## Parrokiako jaiotza urtarilaren 17ra arte ikusgai



San Anton Eguna izango da Parrokiako jaiotza ikusteko azken eguna. Aurtengoan ere, Elgoijaiotza elkarteak lan bikaina egin du eta jende ugari etori da jaiotza ikustera. Urtero bezala, berrikuntzak ditu jaiotzak. Bi pieza berri sartu dituzte. Elgoibarko Filatelia taldearen omenez zigiluak pegatzen diharduen gizonezko bat sartu dute batetik, eta bestalde, arratoia harrapatu ezinik dabilen etxeokandrea bat. Oraindik jaiotza ikustera hurbildu ez direnek urtarilaren 17ra arte daukate aukera. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era eta larunbat eta jai egunetan 10:30-13:30 eta 17:30-20:30.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Bai ala Ez lehiaketa

Abenduan RIP musika taldearen bost CD zozketatu ditugu Bai ala Ez lehiaketan. Saioa Iriondo, Arantza San Martin, Andrea Osoro, Gorka Garate eta Abel Irizar izan dira irabazleak. Lehiaketan parte hartzeko, astero BARRENen egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio, 7505 znbakira sms bat bidaliz. Urtarilean Debako Kresla hotelean bi lagunentzako zirkuitoa zozketatuko dugu.

### Txankakuaren zozketa

Txankakuak egindako zozketako zenbaki irabazleak ondorengoak dira: 37.346, 44.230, 97.254, 46.937, 29.455, 63.341, 96.334, 47.975, 61.501, 79.931. Lehenengo biek 500 euroko erosketa txeketa jasoko dute eta gainontzekoek 100 eurokoa.

### Bai Euskal Herriari zozketa

Bai Euskal Herriari ekimenak landetxe batean bi lagunentzako asteburuko egonaldia zozketatu du. Zenbaki saritua 043325 izan da. Irabazleak 676 885 884 telefonora deitu edo honako helbidera idatzi dezala idazkaritza@baieuskalherriari.org.

### Gabonetako loteria

Parrokiako loteriaren ordainketa Euskadiko Kutxan egingo da, goizeko 8:30etik 10:30era eta 16:30etik 17:30era. Kobratzeko azken eguna urtarilak 21. Bestalde, Odol Emaileen Elkarteak loterian tokatutako saria Euskadiko Kutxan kobratu daiteke.

### Miskiren zozketa

Miski Elkarteak 5.500 erifa saldu ditu neguko kanpainen. Gabonetako zozketaren zenbaki saritua 1.653 izan da. Irabazlea Jose Zabala. Gemma Agirregomezkortak elgoibartar guztiak, eta bereziki, ikastetxeak eskertu nahi ditu eskaini dieten laguntzagatik.

# Inkesta

Urtarrilaren 1ean jarri zen martxan tabakoaren kontrako legea.

## Zer begitantzen zaizu tabakoaren kontrako legea?

**JOSE BASTIDA**

Jubilatua

64 urte



“Ni ez naiz erretzailea eta oso ondo iruditzen zait erretzea debekatzea. Osasunarentzako txarra da eta niri leku itxietan jendeak erretzea traba egiten dit.”

**CARMEN LARRAÑAGA**

Administraria

51 urte



“Keak traba handia egiten dit eta oso ondo iruditzen zait. Gure bulegoan ez gara erretzaileak eta ez daukagu arazorik. Erretzaileentzat zona bat jartzea ondo dago.”

**NEKANE IDIGORAS**

Komertziala

30 urte



“Oso gogorra iruditu zait. Gure lanean lehen erretzaileentzako gela bat zegoen eta orain ez. Nik ez dut erretzen, baina erretzaile amorratuentzat egoera zaila da.”

**ROLANDO TRUCIOS**

Komertziala

63 urte



“Egunero 6 puru handi erretzen ditut, baina leku batzuetan debekatzea ondo iruditzen zait. Nire lanean dendetara sartzeko purua kanpoan uzten dut.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Ba al daukazu gabonak ospatzeko ohiturarik?

**BAI %79**

**EZ %11**

“Gabon gabian familixa osua baserixan batu eta eitxen dogun afarixa berezixa da. Aspalditik pista galduta zenuen jendia ikusteko aukera ematen du. Pega bakarria demaseko kontsumismoa.”

“Gabonak erlijio ikuspegitik bakarrik ospa daitezkeela iruditzen zait. Hori aspaldi galdu zen, ordea. Zerbait salbatzearren, ikusten ez diren familia edo lagunekin egoteko aitzakia da.”

Datorren asterako.... **Hasi dira beherapenak.**


### Ba al daukazu beherapenetan erosteko ohiturarik?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)

## JAIOTAKOAK



**Nagore Sanz Zubiaurre**  
[ Abenduak 1 ]  
Kristian eta Ainhoa



**Julen Garate Oyarzabal**  
[ Abenduak 10 ]  
Alberto eta Idoia



**Iñigo Sastre Estarta**  
[ Abenduak 12 ]  
Gorka eta Nuria



**Urko Manzano Ansola**  
[ Abenduak 16 ]  
Joseba eta Amaia



**Igor Ruiz Igartua**  
[ Abenduak 20 ]  
Miguel eta Igone



**Asier Gomez Daquinta**  
[ Abenduak 29 ]  
Luis eta Rosa

**Irene Montoro Bañal**  
[ Abenduak 3 ]  
Juan Antonio eta Maria Del Mar

**Ivan Migales Rey**  
[ Abenduak 7 ]  
Alfonso eta Mercedes

**Beñat Jurado Deza**  
[ Abenduak 12 ]  
Manuel eta Maria

**Laren Rodriguez Martin**  
[ Abenduak 28 ]  
Antonio eta Ana Maria

**Irune Arriola Ayerdi**  
[ Abenduak 29 ]  
Santiago eta Izaskun



**Oinatz eta Markel Marcos Etxeberria**  
[ Abenduak 24 ]  
Roberto eta Miren



**Alazne Alkorta Aristimuño**  
[ Abenduak 29 ]  
Iagoba eta Agurne

## HILDAKOAK

Manuel Menbrillera • [ 81 urte ] • Abenduak 1  
Tomas Silva • [ 82 urte ] • Abenduak 4  
Antonia Txurruka • [ 89 urte ] • Abenduak 4  
Hector Andoni Alberdi • [ 72 urte ] • Abenduak 5  
Maria Jauregi • [ 94 urte ] • Abenduak 11  
Jose Mari Osoro • [ 59 urte ] • Abenduak 19  
Luis Ciaran • [ 80 urte ] • Abenduak 25  
Mercedes Juaristi • [ 82 urte ] • Abenduak 27  
Juana Sorazu • [ 78 urte ] • Abenduak 27  
Ignacio Mugerza • [ urte ] • Abenduak 29  
Maria Arrillaga • [ 91 urte ] • Abenduak 29  
Agustina Etxaniz • [ 91 urte ] • Abenduak 29  
Ruben Arozena • [ 39 urte ] • Abenduak 30

## EZKONTZAK

Andoni Rodriguez eta Miren Iosune Saez [Abenduak 16]

Atal honetan zuen seme-alaba jaiobertiaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

# ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua**  
OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01

## MENDAROKO BIZKOTXOAK

# PLAZER ARINA

*Plazer arina dira Mendaroko Bizkotxoak, bai. Horixe da eskuetan hartu edo ahoratzean atentzioa deitzen duena: arintasuna. Izan ere, bizkotxo berezia da, beste inon aurki ezin daitekeena, eta txokolatearekin batera Mendaroko izena han eta hemen barreiatu duen herriko gozogintzaren ikurretako bat. Urte batzutan desagertuta egon ostean, Luis Mendikute, Rosi Urain eta Ainara Garcia ari dira tradizio handiko bizkotxoa berreskuratzeko ahaleginean. Bizkotxoak egiteko prozesuaren lekuko pribilegiatuak izan gara eta hona hemen han ikusi eta entzundakoen laburpena.*

**M**endaroko bizkotxoak berreskuratzeko asmoz, Udalak eta Debemeneke lehen eskola publikoak izandako eraikina berri eta egokitu zutela azaldu digu Luis Mendikutek: "Urteak pasatzen hasi ziren, ordea, eta inork ez ziola proiektuari eusten ikusirik, neu sartu nintzen. Etxe ondoan holako edifizio ederra baztertua, geldirik, ikusteak pena ematen zidan. Saiatu gabe ez dago jakiterik funtzionatuko duen edo ez. Gainera, eraitsi eta beste zerbait eraikitzea aztertzen ari ziren. Halere, ez da lan xamurra izango, negozio honek ez baitauka irtenbide

askorik eta bai gastu asko: sua egiteko beharrezko erregaia, gozogileen soldatak, seguruak, etab. Orain ogia eta beste pasta batzuk egiten hasi gara, ia horrela. Bi urterako konpromisoa hartu dut eta bizkotxoak berreskuratzeko aukera guztiak probatzea da nire egitekoa".

Luis Mendikutearen ardurapean bi gozogile ari dira lanean: Rosi Urain eta Ainara Garcia. Rosik badu esperientziarik, lehen ere aritua baita. "Hamaika urtean jardun nuen bizkotxoak egiten. Guri Marcela Osorok erakutsi zizkigun bizkotzogintzaren sekretuak. Higiene edo

beharrezko baldintzak betetzen ez zituelako itxi behar izan zuten, ordea".

Probak egiten duela bi urte hasi zirela azaldu digute. "Ganoraz, ordea, iazko urrian, Kontsezio Azokarako bizkotxoak prestatzeko". Egindako denak saldu zituzten azokan. "Aukeran gutxiegi eman genituen" aitortzen du Luisek, "prozesua geldoa da eta gehiago egiteko astirik edo kapazidaderik ez genuen izan. Egun batean ia 100 dozenara iristen gara une honetan". Rosik eta Ainarak bizkotxoak egitea delikatua dela azaldu digute "bizkotxo denak behar bezala eta berdín

### Prozesua pausoz pauso

1. 30 arrautzaren zuringoak elur punturaino irabiatu (makinak 40 minututan egiten du) ondoren, arrautza-gorringoak gaineratu.



2. Paper baten gainean irina eta azukrea nahastu (250 gramo bakoitzetik) eta, arrautzen nahasketara gaineratu, berriz dena irabiatzeko.

3. Puntu delikatua: bizkotxoaren bereizgarria den bolumena eta testura lortzeko, masarekin pasteltxoei forma ematerakoan tentuz ibili behar da. Kutxarekin masa ongi nahastu behar da. Bizkotxoak, ondo eginak badaude, ez dira papeletik soltatu behar, eta norberak askatzean oso-osorik atera behar dira.



ateratzea zaila da, praktika asko eskatzen du". Hirurak bat datoz edozein unetan jateko gozoa dela goraiatzean. "Postre aukera zabala dago orain, baina lehen-go postre tipikoa zen natilen gainean (orain gailetak jartzen diren moduan) bizkotxo bat jartzea. Bizkotxo fina, arina, da eta ahoratzean ez da masa handirik mastikatu behar. Mendaroko bizkotxoak janda ez da inor lodituko".

#### BIZKOTXOEN FAMA MENDAROTIK KANPO

Mendarotik kanpo ere zabaldu zen bizkotxoaren fama. Tren geltokian emakumeak egoten ziren bidaiarien artean bizkotxoak saltzen. Geldialdi luzeagoak egin ohi zituzten trenek eta jendeak ezagutzen zituen saltzaileok. Alzola eta Markinako bainuetxetara ere eramaten zituzten bizkotxoak asto gainean. Baita Larraskandara ere erromerixa zenean.

## Mendaroko sakristaua

"¡Ay mi sacristán de Mendaro" baxu-baxu esaten ei zuen Isabel II.ak, Espainiako erreginak berekiko, hitzaldi luze eta funtsik gabeak entzun behar izaten zituenean. Bere ama, Maria Cristina, eta ahizparekin batera Euskal Herriko probintzietan zehar bira bat egiten ari zela Mendaro bisitatu eta bertako sakristauak berba egiteko erabilitako hitz jario apalaz oroitzen zen. Mendaroko agintariak gazteleraz tutik ere ez jakin, eta gazteleraz moldatzen zen bakarri, sakristaulari, eskatu zioten Mendaroko bizkotxo famatuak erreginari



oparitzean esker oneko berba batzuk gazteleraz esateko. Eta honek: "Reina nuestra Mendaro mejor que esto no tiene. Come estos bizcochos como madre y la hermana y piensate, que con el corazón damos". Horrelako berbaera zehatz eta naturala nola ez zuen ba gogoan hartuko erreginak? Armadaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hau 1845. urtean. Bizkotxoak egiteko ohitura, hortaz, aspalditik dator. Egun Mendaron bakarrik eskuratu daitezke erreginek ere dastatu dituzten bizkotxo txiki hauek.



4. Labean sartu eta minutu gutxitan eginak daude. 54 dozena erdi bizkotxo ateratzen dute saio bakoitzean.

5. Arrautzen zuringo eta azukrearekin egiten da bizkotxoaren gainazala.



6. Jan eta kitto!

# GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

## IKASKETETAN

IKASTEA INTELEKTUALKI ABERASTEA DELA ESATEN DA, ETA HORI HONELA IZANIK, GAURKO TERTULIAN BILDU DITUGUN BI GAZTE HAUEK OSO ABERATSAK DIRA. IKASLE FINAK IZATEAGATIK SARITU DITUZTE. AITOR ARAKISTAIN ETA ESTITXU ASTIGARRAGAK ESPEDIENTE AKADEMIKO ONENAREN SARIA JASO DUTE. INGENIARITZA IKASLEA BATA, ETA ENPRESARITZA IKASLEA BESTEA, BEREN PROMOZIOKO ONENAK IZAN DIRA. DIRUTAN JASO DUTE SARIA ETA EZ DA MAKALA IZAN! IKASTEN EGINDAKO LANAREN ORDAINA DISFRUTATZEN ARI DIRA ORAIN.



### Zer ikasi duzu?

**Aitor:** "Ingeniaritza elektronikoa eta automatika industrial" ikasi dut Mondragon Unibertsitatean. 5 urteko ikasketak izan dira eta ondoren urtebeteko proiektua.

**Estitxu:** Enpresaritza ikasketak egin ditut Oñatin. Lau urteko ikasketak izan dira, eta gero ekonomia alorreko masterra egin nuen Lesterren (Ingalaterra).

### Espediente akademiko onenaren saria jaso duzue. Espero al zenuten?

**Aitor:** Ez, niretzako sorpresa izan da. Sekula ez naiz fijatu gainontzekoen notetan. Nik nirea egin dut eta kitto! Saria dirutan eman digute, 1.300 euro inguru eta oso pozik nago. Momentuz gurasoei bidai bat oparitu diet, ondo merezita dute-eta!

**Estitxu:** Ez, sekulako sorpresa izan da. Banekien sari hauek banatzen zituztela, baina ni izatea nire promozioko onena ez nuen espero.

**"Ikastolako garaian ikasle nahiko txarra nintzen"**

AITOR

### Zertan diharduzue momentu honetan?

**Aitor:** Eibarko AGME enpresan nabil lanean. Elektronika departamentuko arduraduna naiz. Proiektua amaitu eta lanean hasi nintzen. Oso gustura nago.

**Estitxu:** Ingeles irakasle moduan egiten dut lan orain. Ekonomia alorrean lana

topatzea gustatuko litzaidake, baina momentuz izan ditudan aukerak epe laburrerako ziren. Lan seguruari heldu diot. Irakaskuntza ere gustuko dut. Goizez enpresetan ematen ditut klaseak eta arratsaldean akademia baten.

### Sariak emango al dizue abantailarik?

**Aitor:** Ez dakit. Ni proiektua amaitu aurretik hasi nintzen AGME-n praktiketan eta bertan jarraitzen dut. Momentuz ez dakit sari honek atek irekiko dizkidan edo ez, baina besteek baino zerbait gehiago edukitzea beti da ona.

**Estitxu:** Ez dakit, baina baietz uste dut. Lana topatzerako orduan baloratzen dutela uste dut. Curriculum-a aberasten du.

### Betidanik izan al zarete nota onak ateratzen zituzten ikasle horietakoa?

**Aitor:** Ez. Ikastolako garaian nahiko ikasle txarra nintzen. Institutoan hobetzen hasi nintzen eta Unibertsitatean oso ondo eraman dut dena.

**Estitxu:** Ikasle normala izan naiz. Saiatzen naiz gauzak ondo egiten, baina ez naiz beste munduko ikaslea izan.

### "Inoiz ez gara oheratuko gauza berri bat ikasi gabe". Gogoko al duzu ikastea?

**Aitor:** Ez naiz izan ikasten ordu mordoan pasatzen duten horietakoa. Ikastea baino gehiago, ikasketak gustatu zaizkit eta horrek asko errazten du dena.

**Estitxu:** Bai. Gustuko ditudan gauzak ondo jakitea gustatzen zait. Hori ere ez da ona, azken finean, gauza batzuri buruz mordoak dakizu, baina beste gauza pilo bati buruz ez dakizu ezer. Nire akats bat da, baina momentuz ez zait gainki joan.



# BARREN

## BIKAIN

**Uztartu al daitezke ikasketak eta bizitza soziala?**

**Aitor:** Bai, ni beti izan naiz lagunekin kalera urtetzekoa, ez dut ezer galdu ikasteagatik.

**Estitxu:** Bai, dudarik gabe. Denetarik egin behar da, ez da ona etxean sartuta ikasten gelditzea. Niri kirola egitea ere asko gustatzen zait eta ikasten zaudenean oso ondo etortzen da.

**Zein metodologia erabiltzen duzue ikasteko?**

**Aitor:** Gauzak ondo ulertu, irakurri eta eskemak egin. Nire ikasketak oso teknikoak izan dira, formula asko daude eta horiek buruz ikastea da garrantzitsuenetarikoa.

**Estitxu:** Ez dago trukurik. Klasera joan eta denbora ondo aprobetxatzen dut.

**Erabili al duzu inoiz txuletarik?**

**Aitor:** Inoiz bai! Nik uste dut ikasle denok erabili izan ditugula noizbait txuletak.

**Estitxu:** Bai, denok bezela. Ezetz esaten duenak gezurra dio. Orain irakaslea naiz eta dena ikusten dela konturatu naiz.

**Suspenditu al duzu inoiz ikasgairen bat?**

**Aitor:** Ez dakit, ikastolan seguru baietz! Hortik aurrera dena gainditu dut beti, baina ikasgairen bat suspenditu izan banu ere, ez litzateke ezer gertatuko, ez nintzateke traumatizatuko.

**Estitxu:** Bai. Suspenditzeak trauma suposatzen dionak arazo larria dauka. Suspenditzeagatik ez da ezer pasatzen.

**Lagun eta ikaskideen artean "enpolloi" famarik ba al duzue?**

**Aitor:** Ez dut uste. Ezagutzen naute eta badakite ez naizela "enpolloi" bat. Gainera hitz hori ez zait batere gustatzen.

**Estitxu:** Ez, sekula ez naute "enpollona" bat bezala ikusi.

**Etorkizunean non ikusten duzue zuen burua?**

**Aitor:** Momentuz daukaten lanean gustura nago, baina inoiz ezin da jakin

**“Irakasle izatea dirudiena baino gogorragoa da”**

ESTITXU

etorkizunean non bukatuko dudan. Datorrena hartuko dut, ez nago etorkizunean pentsatzen.

**Estitxu:** Irakaskuntza gustuko dut, baina banketxe batean lan egitea gustatuko litzaidake.

**Berriz aukeratzekotan ikasketa berdinak egingo al zenituzke?**

**Aitor:** Bai, ez naiz batere damutzen. Niri asko gustatu zait. 18 urterekin aukeratzea zaila da, baina elektronika mundua gustatzen zaionarentzat oso ikasketa egokiak dira.

**Estitxu:** Ez dakit. Ikasi dudana ondo dago, baina batzutan uste dut espezialidadea ez nuela ondo aukeratu, eta beharbada karrera bera ere ez. Ekonomia enpresaritza baino gehiago gustatzen zaidala konturatu naiz. Hala ere, ez naiz damutzen eta enpresa munduan sartu nahi duenarentzat oso ondo dago.

**Nolako irakasleak aurkitu dituzue zuen ikasle garcain?**

**Aitor:** Denetarikook. Irakasle oso onak eta oso txarrak. Batzuk izugari motibatzen zaituzte, baina beste batzuk..

**Estitxu:** Denetarikook, baina orain konturatu naiz irakasle izatea oso zaila dela. Ikaslearen ikuspuntutik irakasle izatea oso erraza da, baina bestaldean zaudenean ez da hain erraza. Irakasleak motibatu egin behar

dira eta ondo erakutsi behar zaie. Dirudiena baino gogorragoa da.

**Ikasketak bukatutzat eman dituzue dagoeneko?**

**Aitor:** Gauza berriak ikastea ona da, baina lanean egoteak beste independentzia bat ematen du. Momentuz lanean jarraitzeko asmoa daukat.

**Estitxu:** Doktoretza egitekotan nabil, baina hemen ez da batere erraza, ez dago laguntzarik eta oso motibatuta egon behar da. Akaso beka on bat lortuz gero, ekonomia alorrean egingo nuke zerbeit.



## MORKAIKOREN ARGAZKI LEHIAKETA

### Aitzol Arriola eta Imanol Cerdeiraren argazkiak irabazle



Imanol Cerdeira. "Izotz kandelak"

Morkaiko Mendizale Elkar-  
tearen Argazki Lehiaketa  
"Izotz Kandelak" argaz-  
kiak irabazi du. Imanol Cerdeirak  
125 euro poltsikoratu ditu argazki  
honi esker. Argazki Digital onenari  
zegozkion 75 euroak, berriz, Aitzol  
Arriolarentzat izan dira "Horratzak  
basoan" argazkiagatik.

Azkenik, ikusleen saria, argazki  
guztiak Kultur Etxean erakusgai  
izan ziren astebetean botu gehien  
jaso zituenen, Joaquin Sanchezen  
"Elur ekaitza" izan zen. 100 euro  
jaso zituen Mallabian ateratako  
argazkiagatik.

Paperean 22 argazki aurkeztu  
dira guztira eta digital formatoan

32 argazki. Epaimahaiaren iritzi-  
z, argazki digitalak kalitate  
hobeagokoak izan dira eta  
hauetan irabazle izan den  
argazkia aukeratzen izan dute lan  
gehien. Denera 250 lagun inguru  
pasa ziren erakusketatik.

#### Emiora irteera

Morkaikoren urteko lehen  
irteera Gipuzkoako mendi  
ezagunenetako batera izango da,  
Ernio mendira, urtarilaren 29an,  
igandean. Halere, bide ezezagun-  
enetako batetik igoko dira izena  
ematen dutenak. Informazio  
gehiago eskuratu daiteke honako  
helbidean: [www.morkaiko.net](http://www.morkaiko.net).

#### Fandango eta arin-arin ikastaroen jarraipena

Inazio Bereziartua Musika  
Eskolak, Haritz Euskal Dantzari  
taldearen laguntzarekin, fandango  
eta arin-arin ikastaroak hasi zituen  
joan zen azaroan. Orain, ikastaro  
hauei jarraipena eman nahian,  
hobekuntza ikastaroarekin hasiak  
dira jada. Bertan, betiko euskal  
dantzak gogoratu, bultzatu eta  
hauek dantzatzuz gozatzeko  
aukera izango da. Jon Zaldua eta  
Ainhoa Lendinez izango dira  
irakasleak, biak Haritz Euskal  
Dantzari Taldeko kideak. Izen-  
ematea eta informazio gehiago  
Musika Eskolan.

#### Ruben Arozena komikigilea hil da

Ruben Arozena "Ruben" komikigile  
elgoibartarra hil zen abenduaren 30ean, 39  
urte zituela. Guztiz ustekabeen eta biho-  
tzekoak jota hil zen. Euskal Herriko Uniber-  
tsitateko Arte Ederren fakultateko irakaslea  
zen eta 17 urterekin ekin zion Ipurbeltz  
aldizkarian kolaboratzeari. "Triskilistraski"  
pertsoniarekin hasi eta "Bi Luma" pertsonaia  
gehitu zitzaion gero, oraindik ere jarraitzen  
duen "Triski eta Bi Luma" bihurtuz. Habez  
gain, 1988an "Brans" eta 1989tik 94ra  
"Aigar eta Pello" gerlariak "Ipurbeltz"en eta  
"Habe", "Habeko Mik", "El Vibora" eta  
"Nuova Frontiera" aldizkarietan ere argitaratu  
ditu komikiak. Arozenak 22 urte eman zituen



komikigintzan eta "Ipurbeltz"erako lanean.  
Elgoibarko komikizaleek ere asko zor diote.  
Berak eta Alberto Garciak 1989. urtean  
jarritako erakusketa bati esker sortu baitzen  
Ko.Ko.E. taldea (Kolektibo Komix Elgoibar).



#### ESKERTZA

2005eko abenduaren 30ean hil zen  
*Ruben Arozena Expositoren*  
emazteak, amak, anai-arrebek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LXIII. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSA

# Mugerza Krosaren izana eta izenak argazki erakusketan bilduta



Urtarrilaren 22an izango den Mugerza krosa girotzeko asmoz argazki erakusketa antolatu du Mintxeta Atletismo Taldeak. Jadanik ikusgai dago Kultur Etxeko sotoan eta lasterketa egunera arte egongo dira atekak irekita. Bertan, krosaren historiako momentu esanguratsuenak eta antxintxikari mitikoenak, hala nola; Mammo Wolde, Abebe Bikila, Mariano Haro, Ngugi, Gebreselassie, Bekele, Tergat, etab. harrapatzen dituzten argazkiak ikus

daitezke, hasieratik gaur artekoak. Udal fototeka, Ego-Toki eta partikularren bitartez lortu dute argazkiok batzea eta 200 aletik gora dituzten arren, aukeraketa bat egin behar izan dute. Zuri beltzean eta formato handian aurkeztu dituzte argazkiok, detailerik ez galtzeko. Argazkiez gain, 1963tik gaurdaino lasterketa iragartzeko kartel guztiak eta zenbait ediziotako bideoak ere badaude. Bideoak kronologikoki eskainiko dira, egunez egun, lasterketa egunera arte.

## Lagunakeko hiru pilotari San Anton Txapelketako finalaurrekoan

Lagunak Pilota Eskolako hiru pilotarik (Ulazia, Atxotegi eta Loiola) parte hartuko dute gaur iluntzean jokatuko diren San Anton Txapelketako bigarren finalerdietan. Promesa mailan, Ulazia mendarorarik eta Izak, Atxotegi plaentxiararen eta Otxotorenaren aurka neurtuko dituzte indarrak 22:00etatik aurrera. Nagusien mailako partidari, berriz, Eneko Loiola elgoibartarrak Olaetxea eta Jauregi bikotearen aurka jokatu du Baez II donostiarra lagun duela. San Migelekoa sasoi puntu onean iritsiko da zita garrantzitsu honetara, Alzako Gabonetako Torneoa irabazi berri baitu. San Anton Txapelketaren finalak urtarrilaren 20an jokatu dira 22:00etatik aurrera.




## Angel Mari Lopez nagusi Zumarragako krosean

Mintxeta Atletismo Taldeko Angel Mari Lopezek garaipen handia lortu zuen eskolartereko Zumarragako krosean. Antxintxikari elgoibartarrak kadete mailako Gipuzkoako egungo txapelkunarekin lehia bizia eduki zuen lasterketa guztian eta azken metrotan lortu zuen aurkaria atzean lagatzea. Zumarragako ez da elgoibartarrek parte hartu duten lasterketa bakarra izan, Lazkaoko krosean Mintxetako 70 atleta aritu ziren. Posturik aipagarrien artean, Nora Santiagok 5. postua lortu zuen alebin mailan eta Borja Diez, berriz, 4. postuan sailkatu zen infantil mailan.

## I. URTEURRENA

2005eko urtarrilaren 12an, 61 urte zituela hil zen *Josefina Gutierrez Barrioren* oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## SANLO ESKUBALOI TALDEAREN AURKEZPENA

### Senior neskak eta kadete mutilak 1. postuan denboraldi erdian

**E**tenik gabe hazten ari da Sanlo Eskubaloi Taldea eta aurten 148 neska-mutil ari dira eskubaloian jokatzeko 10 taldetan (infantilak argazki bakarrean batu ditugu) banaturik. Aurrekontuak ere gorantz egin du eta 66.000 eurokoa da aurten.

Horrenbeste jokalaririk eta talde izanik, entrenamenduak egiteko leku eta ordutegiaren arazoak izaten jarraitzen dute.

Konponbide posible gisa, Kiroldegia handitzeko eskaera egina dutela adierazi digute Sanloko arduradunek. Kirol arloari dagokionez, denboraldiaren ekuadorrera iritsita, senior mailako neskak eta Urnabitza kadete mailako mutilen taldea ari dira nabarmentzen, biak ere sailkapeneko lehen postuan baitaude. Neskek lehen bi postuetan amaitzen badute Espainiako Txapelketa jokatzeko txartela lortuko dute.

Urnabitza, berriz, liga txapelketa irabazteko aukera handiak ditu, talde ona eta maila are hobea erakusten ari dira-eta. Tecnifuelle (senior mutilak) ere denboraldi azpimarragarria egiten ari da. 4. postuan sailkatuta daude eta itxura ona ematen, konpetentzia handia dagoen mailan.

Infantil mailako bi taldeak ere primeran ari dira eta litekeena da bi taldeen artean erabakitzea ligako txapelketa.



*Cometel Sanlo (Jubenil neskak)*



*Pagoaga Sanlo (Kadete neskak)*



*Tecnomeca Sanlo (Kadete mutilak)*



*Pneumax Sanlo (Jubenil mutilak)*



*Sanlo (Infantil neskak)*



*Urnabitza Sanlo (Infantil mutilak)*

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 0 - UPV 1 (3. maila)  
 Amaiak Bat 0 - Elgoibar 2 (Erreg.)  
 Elgoibar 0 - Alaves 1 (Jub.)  
 Anaitasuna 4 - Elgoibar 1 (Kad.)  
 Añorga 6 - Elgoibar 1 (Inf. A.)  
 Elgoibar 1 - Ilintxa 8 (Neskak)

### ESKUBALOA

Tecnifuelle 26 - Portugalete 22 (Senior mut.)  
 ANTT Softlan 9 - Donibane 22 (Senior. mut.)

### PILOTA

#### San Anton Txapelketa

Lagunak (Atxotegi/Portu) 22 - Añorga 9 (1. jub.)  
 Lagunak (Liz./Arrizab.) 22 - Bergara 19 (2. jub.)  
 Lagunak (Amb./Sal.) 21 - Gazteleku 22 (2. kad.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA

Mintxetan  
 Zapatua, 14

10:30 Elgoibar - A. Ondaroa (Inf. A)

12:15 Elgoibar - Zarautz (Inf. B)

14:00 Elgoibar - Lagun Onak (Neskak F-8)

Domekia, 15

11:00 Elgoibar - Umieta (Kad.)

### ESKU PILOTA

#### San Anton Txapelketa

Barixakua, 13

22:00 Ulazia/Iza - Atxotegi/Otxotorena (Promesak)

22:45 Olaetxea/Jauregi - Baez II/Loiola (Nagusiak)

### ESKUBALOA

Kiroldegian  
 Domekia, 15

10:30 Sanlo A - Zarautz Aiala (Inf. neska)

12:00 Cometel - Bera Bera (Jub. neska)



ANNT Sanlo (Senior mutikak)



Sanlo (Senior neskek)



Tecnifuelle Sanlo (Senior mutikak)

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

† Madalan estreinatu gabe dagoen etxea salgai. 3 logela, egongela handia, bi komun, sukalde-jan-gela eta garajea.

☎ 696 79 41 81

† Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. 3 logela, bi komun, egongela, sukalde. Igogailua, berogailu zentrala eta ganbara.

☎ 696 84 50 61

† Pisu salgai Santa Klaran. 2 logela, komuna, egongela, sukalde eta despentsa. Berogailu zentrala eta leiho berriak. 7 urte. Sartzeko moduan. ☎ 943 74 23 08

### ALOKAIRUA

† Pisu edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ 686 475 563

† Pertsona batentzako pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke.

☎ 677 097 015

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

† Garaje marraduna salgai Leku Ederreko 4. solairuan.

☎ 660 042 159

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan. ☎ 943 53 14 69 (Alex)

† Lokal bat hartuko genuke alokairuan karabana bat gordetzeko.

☎ 943 74 29 52

## [ AUTOAK ]

† Kotxea saltzen dut. Seat Leon FR Sport TDI. 150 zaldiko indarra. Gris plateatua. ☎ 609 888 653

## [ BESTELAKOAK ]

† Soinu handi bat salgai. Egoera onean. ☎ 943 74 19 30

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea gauzez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko prest. ☎ 686 108 552
- Bi neska lanerako prest: tabernan, nagusiak edo umeak zaintzen... ☎ 943 53 12 70
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lana egiteko prest. ☎ 943 74 88 99/ 685 72 48 61
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. ☎ 620 701 323
- Emakumea garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699576107

- Emakumea umeak zaintzeko prest. ☎ 669 22 35 27 (19:00etatik aurrera)
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 646 235 195
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 639 978 728
- Txistularia eta dantzaria den neska ospakizunetarako prest. ☎ 615 799 689
- Bi emakume lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zaindu edo garbiketa lanak eginez. ☎ 695701753/943201079
- Mutila eraikuntza lanetarako prest. ☎ 662 09 46 24

- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01 (Araceli)
- Emakumea lanerako prest: kamarera, sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo antzerako lanetan. ☎ 600 28 27 93
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaindu, edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 686108552/ 616158430
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, garbiketa lanak, ostalaritza... ☎ 626914904 (Rosa)
- Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ 606 296 153

- Emakume nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanetarako prest. ☎ 675 467 874
- Emakumea eskaintzen da lanetarako. Esperientziaduna. ☎ 647 144 950

### ESKAINITZA

- Zapatuetan tabernako atean lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 670 654 921
- Elgoibarren tailer enkargatua behar da, zenbakizko kontrol zentral aditua. Kurrikulum-a 169 postakutxatilara.
- Asteburuetarako ileapaintzailea behar da. ☎ 943 74 44 89 / 685 72 86 09



## SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA 1985. urtetik Elgoibarren

### YOGAREN ONURAK

Birikak, odola eta zelulak desintoxikatzen ditu.  
Loezina, depresioa eta tristura sendatzen ditu.  
Bizkarrezurraren arazoak zuzentzen ditu.  
Estresa eta nerbio tentsioak ezabatzen ditu.  
Odolaren zirkulazioa hobetzen du.  
Nerbio sistema tonifikatzen du.  
Bizi energia haunditzen du.  
Lotsa, histeria eta neurosia garaitzen laguntzen du.  
Oroimena eta adimena garatzen ditu.  
Nortasuna sendotzen du.

### INFORMAZIOA

943 74 85 93 / 685 72 21 31 (Idoia)

## IKASTARO BERRIA "Oinarrizko Yoga" ikastaroa Astelehena eta asteazkena 19:00-20:00

### ELGOIBAR

Astearte-Osteguna  
Goizez 10:00-11:30  
Arratsaldez 15:00-16:30  
18:00-19:30  
20:15-21:30  
Urasandi, 9 behea

### MENDARO

Astelehena-Asteazkena  
Goizez 10:00-11:30  
Arratsaldez 15:00-16:30  
Kultur Etxean  
Astearte-Osteguna  
20:00-21:30 Kz gunean

## [ZORIONAK]



† Zorionak **Maialen** 7 urte egin dituelako. Familiako eta bereziki, Garaziren partez.



† Zorionak **Iker** urtarrilaren 15ean 9 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Julene** abenduaren 28an 9 urte egin zenituelako. Olaia eta familiako guztien partez.




† Zorionak **Aitor** urtarrilaren 4an 4 urte egin zenituelako. Familiako eta bereziki, anaien partez.



† Zorionak **Andrea** urtarrilaren 5ean 8 urte egin zenituelako. Gurasoen eta bereziki, Ekain eta Asierren partez.




† 13 urte bete dituzul! Zorionak **Egoitz** etxekoan partez.



† Zorionak **Nahia!** Neskaxo handia egin zara. Patxo asko familiakoan partez.



† Zorionak **Iker** urtarrilaren 17an 2 urte egingo dituzulako. Aitxixa, amama eta etxeko guztien partez.



† Ondo pasatu al zenuen zure urtebetetze egunean? Sendatzean ospatuko dugu. Zorionak! Ikastolako laguntxoan partez.



† Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Zorionak ikastolako laguntxoan partez.



† Zorionak **June** urtarrilaren 9an urte bat egin zenuelako. Patxito handi bat familiakoan partez.



† Eskerrik asko **Nahia** gure bizitzetara etortzeagatik. Familiakoan partez.



† Zorionak **Itigo** zure 8. urtebetetzean. Familiakoan partez.



† Zorionak **Emilio eta Josefari** urtarrilaren 7an urrezko ezteiak egin zituztelako. Jarraitu horrela beste urte pilo batean. Etxeko guztien partez.



† Zorionak **Danel eta Sarai** abenduaren 11n eta 30ean urteak bete zenituztelako. Etxekoan partez muxu handi bat.



† Zorionak **Gorka eta Anton** hilaren 16an eta 17an zuen eguna delako. Familiakoan eta bereziki, Anderren partez. Oso ondo pasat! Erregalua...? Sorpresa!



† Zorionak **Maier eta Julen** abenduaren 13an eta 15ean 7 eta 11 urte egin zenituztelako. Etxekoan eta bereziki Aitor, Ainhoa eta Zorioneren partez.



## [ OKINDEGIA ]



15 igandea DOÑA MERCEDES

17 martitzena EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

- GUARDIA** 24 ORDUZ  
13 Etxeberria (*Errosario*)  
14 Fernandez  
(\* *Goizez Etxeberria Santa Ana*)  
15 Fernandez  
16 Yudego  
17 Zabaleta  
18 Etxeberria (*Errosario*)  
19 Ibañez  
20 Zabaleta

\* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



### ESKERTZA

2006ko urtarrilaren 10ean hil zen  
*Jose Epelde Arriolaren*  
emazteak eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2005eko abenduaren 29an hil zen  
*Ignacio Muguerza Izaguirre*ren  
emaztea, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2005eko abenduaren 27an hil zen  
*Jesusa Sorazu Arriolaren*  
senarrak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## [ 13 BARIXAKUA ]

### 19:30 "TODOS NACEMOS VASCOS" ANTZEZLANA

Taldea: Glu-Glu producciones  
Herriko Antzokian

### 22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALERDIAK

Ikastolako frontoian  
Antolatzaileak: Lagunak Pilota  
Eskola eta Udal Kirol Patronatua

### 22:15 "TODOS NACEMOS VASCOS" ANTZEZLANA

Taldea: Glu-Glu producciones  
Herriko Antzokian

## [ 14 ZAPATUA ]

### 12:00 XXVI. ZIGILU ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan  
Urtarrilaren 22ra arte

### 16:00 BIDE EGINEZ EZTABAIDA PROZESUAREN III. BATZARRA

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

## [ 15 DOMEKIA ]

### 13:00 ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KALEJIRA HERRIKO DULTZAINEROEKIN

## [ 16 ASTELEHENA ]

### 10:00 "URIK ONENA, ALFERRIK GALTZEN EZ DENA!"

Autobus erakusketa ibiltariaren bultzatzailea  
Nafarroa Plazan  
Urtarrilaren 17, 18 eta 19an ere  
20:00ak arte

## [ 17 MARTITZENA ]

### 11:00 SAN ANTON EGUNEKO MEZA NAGUSIA

San bartolome Parrokiako  
Abesbatzak abestuta

### 11:30 UMEENTZAKO PARKEA

Plaza Handian (euria eginez gero,  
Ikastolan)

### 12:30 ERTZAINZAREN BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## [ 18 EGUAZTENA ]

### 12:30 LXIII. NAZIOARTEKO JUAN MUGERZA KROSAREN AURKEZPENA

Udaletxeko pleno aretoan

## [ 20 BARIXAKUA ]

### 22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK

Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Lagunak Pilota  
Eskola eta Udal Kirol Patronatua

## [ 21 ZAPATUA ]

### 11:00 SAN BIZENTE EGUNEKO MEZA

San Rokeko ermitan

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Virgen a los cuarenta»

14, zapatua: 19:30-22:15

15, domekia: 19:30-22:15

\*16, astelehena: 21:30

#### «Harry Potter: El caliz de fuego»

15, domekia: 16:30

17, martitzena: 16:30

#### «King-Kong»

20, barixakua: 22:15

\*Adi!! ordutegi berria

### EIBAR, UNTZAGA

#### «12 fuera de casa»

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:15

15, domekia: 17:00-19:30-22:15

16, astelehena: 19:30-22:15

17, martitzena: 19:30-22:15

18, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Aeon-Flux»

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:15

15, domekia: 17:00-19:30-22:15

16, astelehena: 19:30-22:15

#### «Txirri, Mirri eta Txiribiton»

14, zapatua: 17:00

15, domekia: 17:00

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSISIAK

### «Virgen a los cuarenta»



Zuzendaria: Judd Apatow.

Antzezleak: Steve Carell, Catherine Keener.

Andy, inoiz larrurik jo ez duen 40 urteko gizonezko maitagarriaren istorioa kontatzen du filma estatubatuar honek. Birjinitatea galtzeko hasiko duen bidea odisea bat bilakatuko da, batez ere, bere lagunen kontseilu aldrebasei kasu egiteagatik. Izan ere, ahaleginean horrenbeste urtez itxaroten egon dena galzorian jarriko du, benetako maitasuna, alegia. Andyren lagunak burunahaste honetan parte hartzeko prest dauden hiru emakume topatuko dituzte.

# Atzera begira



**1985** urteko erretratu zahar hau **Itziar Ibabek** laga digu. Argazkia Mendaroko Aizpe Elkartean aterata dago. Egun honetan Alberto Ormaetxea eta Javier Clemente futbol entrenatzaileak hitzaldi bat ematera etorri ziren. Une hartan, bi entrenatzaileak bi liga irabazi berri zeuden, bata Athletic taldearekin eta bestea Realarekin. Duela hilabete gutxi batzuk Alberto Ormaetxea hil egin zen. Elgoibarko bi futbolzalek omenaldi txiki bat egin nahi izan diote Realeko entrenatzaile izandakoari, eta argazki hau ekarri digute. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: **Alberto Ormaetxea (†), Javier Bernedo eta Juan Bautista Lariz (Athletic-eko jarraitzaileak) eta Javier Clemente.**



## ESKERTZA

2006ko urtarrilaren 1ean hil zen  
*Josefa Aramberri Arosteguiren*  
seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2005eko abenduaren 29an hil zen  
*Maria Arrillaga Arriolaren*  
seme-alabek, bilobek, birbilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ARANBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO  
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA  
GIZONEZKOENTZAKO  
URREZKO ERLOJUA

Zkia.: 1.068

Ordezkoa: 2.196 zenb.



2. SARIA  
EMAKUMEZKOENTZAKO  
URREZKO ERLOJUA

Zkia.: 3.448

Ordezkoa: 461 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 74 25 35

*el desván*

## LAGUNAK



**90 zm-ko oherako nordikoak**  
**29 € BAKARRIK**

Zure nordikoa ez da izango amets bat!!

**Neguko promozioa**



**Kalitate goreneko edredoi  
nordikoa eskeintzen dizugu!**

Pisua: 250 gr. edo 100 gr. • Ehuna: %100 kotoia

**%20ko beherapena ehunetan!**



Uki  
leuna



Airearen  
zirkulazioa



Mikroklima  
bero erregulatua



40°-tan  
garbigarria



Garbiketa  
lehorrean



Hipoalergenikoa

**Neurri guztiak ditugu!**

# Beherapenak



**JULENE**

San Frantzisko, 43  
Tel.: 943 74 42 53

*Lizzy*

Errosario, 25  
Tel.: 943 74 23 02

*Ferpi  
Modak*

San Bartolome, 38  
Tel.: 943 74 08 15



**gofi**

Giza Eskubideen  
plaza, 1  
Tel.: 943 74 46 53

**GARATE**

San Bartolome, 13  
Tel.: 943 74 11 29

*Jantzi  
Maidagan  
Dendu*

San Frantzisko, 20  
Tel.: 943 74 40 98



**iriondo  
kirolak**

San Frantzisko, 37-54  
Tel.: 943 74 09 56

*Sara*



Errosario, 12  
Tel.: 943 74 35 55



**ASTIGARRAGA  
KIROLAK**

Errosario, 16-18  
Tel.: 943 74 32 68

*Luvik*

San Bartolome, 28  
Tel.: 943 74 31 27